

**17/1997 FORU ARAUA, EKAINAREN 9KOA, NEKAZARITZAREKIN ERLAZIOA
DUTEN ZERGA-NEURRIEI BURUZKOA [\(7\)](#)**

(ALHAO, 68. zk., 97-6-18koa, gehigarria)

ZIOEN AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 21eko 7/1992 Legeak, Urezta daitezkeen Zonekin, Eskualdeak Hobetzeko Planekin eta Aldaketak egiteko Plan Orokorrekin erlazioa duten zenbait alderdi arautzen ditu. Lege horren bidez, nekazaritza-ustiapenak aldatu nahi dira, ureztatze sistema egokiak ezarriz eta ureztapen-sistema horiek errentagarri eginez. Ondorioz, Ureztatzaileen Erkidegoak sortu dira, Lege honetan aurreikusitako jarduerak garatzeko; Lege honetan agertzen diren jarduerak sustatu nahi dira.

Bestalde, ekainaren 4ko 1/1995 Legeak, Nekazaritza-Ustiapenak Modernizatzeari buruzkoak, zenbait neurri ezarri zituen, lurraren merkatuak dinamizatzeko eta jabegoa eskuratzeko bideak errazteko, besteak beste: ustiapenen segurtasuna gordetzeko zenbait zerga-onura, ustiapenak zabaltzeko aukera, lurraren merkatua arintzera zuzendutako neurriak, eta aldi berean, nekazari gazteentzako zerga-onura bereziak.

Azkenik, Nekazaritza-Politika Komuna eta Ingurugiroa zaintzeko neurriak ezartzearen ondorioz, komenigarria da nekazaritza-jarduera garatzen duen errealitate berri honetarako zerga-trataera berri bat ezartzea, Lurralde Historikoaren beharren arabera egokituko dena.

Goiko guztia kontuan hartuz, nekazaritzarekin erlazioa duten zerga-neurriak arautzeko foru-arau bat lantzea komenigarritzat jo da, arautuko dituena.

I. KAPITULUA

**UREZTATZAILEEN ERKIDEGOEKIN ETA URA ERABILTZEKO BAIMENEKIN
ERLAZIONATURIK DAUDEN ZERGA-NEURRIAK**

1. artikulua.- Ureztatzaileen Erkidegoak.

1981eko maiatzaren 31ko Ondarearen Eskualdaketaren eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zergaren Foru Arauko 46.I.A. artikulua aldatu egin da, eta atal berri bat gehitu zaio, e) hizkia hain zuzen ere, eta ondoren adierazten dena izango da bere edukia:

“e) Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 21eko 7/1992 Legean (Urezta daitezkeen Zonei, Eskualdeak Hobetzeko Planei eta Aldaketa Orokorreko Planei buruzko alderdi batzuk arautzen dituena), aurreikusitako jarduerak garatzeko sortu diren Ureztatzaileen Erkidegoak, edo helburutzat Lege horretan agertzen diren jarduerak garatzea helburu duten Ureztatzaileen Erkidegoak.”

2. artikulua.- Ura erabiltzeko baimenak.

1981eko maiatzaren 31ko Ondarearen Eskualdaketaren eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Arauko 46.1.B. artikulua aldatu egin da, eta zenbaki bat gehitu zaio, 26. zenbakia hain zuzen ere, eta ondoren adierazten dena izango da bere edukia:

"26. Zenbait pertsonari ureztapenerako ura erabiltzeko baimena eman zaio; baimen horiek Ureztatzaileen Erkidegoen esku utziko dira (Ureztatzaileen Erkidegoak Eusko Jaurlaritzako abenduaren 21eko 7/1992 Legean Urezta daitezkeen Zonei, Eskualdeak Hobetzeko Planei eta Aldaketak egiteko Plan Orokorrei buruzko zenbait alderdi arautzen dituen jarduerak garatzeko sortu ziren), edo Lege horretan aurreikusi diren jarduerak garatzera zuzentzen diren Ureztatzaileen Erkidegoen esku geratuko dira; beti ere, urtebetera ustiapena Ureztatzaileen Erkidegoetan bati lagako zaiola aitortu beharko da, eta urtebeteko epe horretan lagapena egin dela egiaztatu beharko da; lagapena egin dela egiaztatzeko, eskritura publiko bat aurkeztu behar da Zerga Administrazioan, baita Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko ziurtagiri bat ere, non ustiapena eskuratu duen Erkidegoa, artikuluko honetako e) hizkiko I.A- atalean aurreikusitako jardueren barruan sartzeri dela adierazi beharko den.

Urtebeteko epea pasa ondoren, Ureztatzaileen Erkidegoa oraindik behar den moduan ez badago eratuta, doaneko lagatzea egiteko epea hilabetekoa izango da, Cuencako Erakundeak Erkidegoa onartzen duenetik hasita. Onarpen hori gehienez hiru urterako izango da, salbuespentzat jo den lagatzea egiten denetik hasita.

Adierazi ditugun epeak bukatu ondoren, oraindik lagatzea egin ez bada ere, goian adierazi duguna, alegia, Zerga, Administrazioak dagokion behin-behineko likidazioa egingo du, zerga-ordainketa eskatzeko.

Goikoa alde batera utziz, subjektu pasiboak likidazio horren ondorioz izandako sarrerak berari itzultzea eska dezake, preskripzio-epea bukatu baino lehen ustiapena doan lagatzen badu eta Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak justifikatzen badu lagatzea zegokion epean ez egitearen arrazoiak subjektu pasiboaren borondatearen kanpoko arrazoiak zirela."

II. KAPITULUA

NEKAZARITZAREKIN ERLAZIONATURIK DAUDEN ZERGA-NEURRIAK

3. artikulua.- Ustiapenen eskualdaketa.

1. Edozein tituluren bidez, doanezkoa edo kostubidezkoa, nekazaritza-ustiapen oso baten jabetza osoa edo bizitza osorako gozamina lehentasunezko ustiapen baten titularra den pertsona bati edo batek (edo lehentasunezko ustiapena 9% izan, baina eskurapenaren ondorioz lehentasunezko ustiapen bihurtzen duen titular bati edo batek) "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatzean edo eskuratzean, eskualdaketak edo eskuraketak kargatzen dituen zergak ez ditu ordaindu beharko.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren arabera, nekazaritza-ustiapena osotasunean eskualdatzen dela, nahiz eta etxebizitza salbuetsi.

2. Edozein tituluren bidez, doanezkoa edo kostubidezkoa, landa-lursail bat edo nekazaritza-ustiapen baten zati baten jabetza osoa edo bizitza osorako gozamina, edo Nekazaritza Politika Komuneko laguntzetatik datozen ekoizpen-eskubideak, edo etxebizitza -ustiapenean dagoenean eta ustiapenarekin batera eskualdatzen denean-, lehentasunezko ustiapena garatzen duen titular bati (lehentasunezko ustiapena izan edo izatera iritsi nahi duena), "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatzean edo eskuratzean kargatzen diren zergak ez ditu ordaindu behar.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan araututako salbuespena ezarri ahal izateko, eskualdaketa eskritura publiko baten bidez egin beharko da eta eskurapenaren eskritura publikoan eta Jabego Erregistroan (eskualdatu diren lursailak bertan agertuz gero) honako hau adierazi beharko da lursailak eskuratu eta ondorengo bost urteetako epean, lursail horiek besterendu, alokatu edo beste bati lagatzen bazaizkio, salbuespena ezartzearen ondorioz ordaintzen ez den zergari dagokion ordainketa aurretik justifikatu beharko du, baita atzerapenengatik izandako interesak ere, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

4. artikulua.- Muga bakarreko ustiapena.

1. Edozein tituluren bidez, doanezkoa edo kostubidezkoa, lursailak, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatzean edo eskuratzean, (beti ere, lursaila muga bakarreko lehentasunezko ustiapen bihurtzeko eskualdatzen edo eskuratzen denean) eskualdaketa edo eskurapenak kargatzen duen zerga ez dute ordainduko; beti ere, lursaila eskuratu dela adierazten duen agiri publikoan, hurrengo bost urteetan lursail hori zatituko ez dela adierazten bada, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Nekazaritza-ustiapenen titularrek lursailen eskualdaketa eta eskurapena, lursail mugatu baten %50, gutxienez, ustiapenerako azalera bihurtzeko egiten badute (beti ere, dagokion araudian ezarritako mugen barruan badago ustiapen honen lan-errenta unitarioa), eskualdaketa edo eskurapenak kargatzen duen zergaren ezarpen-oinarrian %50eko murriztapena egin ahal izango da. Murriztapen hau ezarri ahal izateko, goiko puntuan esan dugun bezala, lursaila ezingo da zatitu eta lursaila eskuratu dela egiaztatzen duen agiri publikoa aurkeztu beharko da.

3. (3) Artikulu honetako aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, 1981eko maiatzaren 31ko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 1. artikuluan aipatzen den zerga-kargatik salbuetsita daude landa-orubeen erosketak, beste landa-orube mugakide baten jabeak egiten dituenen batzuek eta besteak batzeko asmoz.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko erosketa eta bategite operazioa eskritura publikoan formalizatu behar dira, bertan adieraziz orubeak bat egin ondoren gelditzen den orubea ezin dela banatu bost urteko epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

5. artikulua.- (3) Landa-finken trukatzea.

Ondare Eskualdaketa eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren "kostubidezko ondare eskualdaketa" motan edo Balio Erantsiaren gaineko Zergan honakoak salbuetsita egongo dira:

a) Nekazaritza-ustiategien jabeek burututako landa-finken trukatzeak.

- b) Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak baimendutako trukatzek.
- c) Landa-alokairuaren legedia dela-eta jabegoa eskuratzeko sortzen diren transmisioak.
- d) Honako gauza hauetarako egiten diren trukatzek: beste lursailen barruan dauden lursailak desagertarazteko, igarobide murrizketak ezabatzeko, nekazaritza-ustiategiak berregituratu. Azkeneko kasu horretan sartzen dira honako honetarako egindako trukatzek anizkoitzak: izaera pribatuko lursail-kontzentrazioa burutzeko edo trukatzeko finkak nekazaritza-ustiategiaren jabearen laneko etxera hurbiltzeko, beti ere etxe hori ohiko etxebizitza bada.

Artikulu honetan arauturiko salbuespenak aplikatzeko artikuluan aurreikusitako operazioak eskritura publikoan formalizatu behar dira.

6. artikulua.- Erregistroan izena ematea.

Ondarearen Eskualdaketaren gaineko eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ez dute ordainduko: jabari-espeditentek, ezaguntasun-aktek eta lehentasunezko nekazaritza-ustiapen bat osatzen duten lursailak, edo nekazaritza-ustiapen bat osatu dezaketen lursailak, Jabegoaren Erregistroan berriro inmatrikulatzeko edo berriro izena emateko beste edozein prozedurak.

7. artikulua.- Maileguak.

Egintza Juridiko Dokumentatuen Zergaren karga gradualetik at geratuko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari atxikiturik dauden hipoteka-maileguen eraketa, aldaketa edo kitapena egin direla adierazten duten eskritura publikoen lehenengo kopiak; beti ere, mailegua nekazaritza-ustiapenen titularrei egiten zaienean (nekazaritza-jarduerekin zuzenean erlazionaturik dauden azpiegiturak garatzeko egin diren inbertsioak finantzatzeko, beti ere Arabako Nekazaritza Saileko Laguntza Planen arabera), edo mailegua lehentasunezko ustiapenen titularrei egiten zaienean (hobekuntza-planak garatzeko edo lehentasunezko ustiapenak ez izan baina maileguaren bidez finantzatzeko eskurapenen bidez, lehentasunezko lursail bihurtuko dituzten lursailen titularrei); aldi berean, maileguen artean sartuko ditugu beste inbertsio batzuk ere, zeintzuk, nahiz eta Laguntza Planen barruan ez egon, ustiapena Hobetzera zuzendutako Planaren zati bat diren.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren arabera, laguntza jasoko duten inbertsioak Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak emandako ziurtagiri baten bidez baieztatu behar dira, eta laguntzarik jasoko ez duten inbertsioak, berriz, Sail beraren txosten baten bidez, Hobekuntza Planaren bideragarritasun ekonomikoa justifikatuko duena.

8. artikulua.- Elkartze-ustiapenen ibilgetu materialaren amortizazioa.

Lehentasunezko elkartze-ustiapenen kasuan, nekazaritza-jarduera garatzeko beharrezkoa den ibilgetu materiala osatzen duten elementuek, amortizazio-askatasuna dute; beti ere, elementu horiek lehentasunezko ustiapena lortu eta lehenengo bost urteetan eskuratuak izan behar dute. Babes berezia duten eta Kooperatibak diren

lehentasunezko elkartze-ustiapenentzat, Sozietateen gaineko Zergan, kuota osoarengatik %75eko hobaria egingo da.

9. artikulua.- Nekazari gazteen jardueraren gaineko zerga-neurriak.

1. Edozein tituluren bidez, doanezkoa edo kostubidezkoa, nekazari gazte bati edo soldatapeko nekazari bati ustiapen propioa sortzeko, nekazaritza-lursail bat, edo zati bat edo landa-lursail baten jabetza osoa edo bizitza osorako gozamina edo Nekazaritza-Politika Komuneko laguntzetatik datozen ekoizpen-eskubideak edo etxebizitza-ustiapenena bertan dagoenean eta ustiapenarekin batera eskualdatzen denean, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatzen zaionean edo eskuratzen duenean, eskualdaketak kargatzen dituen zerga ez du ordaindu behar izango.

2. Artikulu honen aurreko atalean aztertutako kasuei, Foru Arau honetako 3. ataleko 3. artikuluan adierazitakoa ezarriko zaie.

3. Egintza Juridiko Dokumentatuen Zergaren kargatik at geratuko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari atxikiturik dauden hipoteka-maileguen eraketa, aldaketa edo kitapena egin dela adierazten duten eskritura publikoen lehenengo kopiak; beti ere, mailegua nekazari gazteei edo soldatapeko nekazariei ematen bazaie, lehentasunezko ustiapen bat lehenengoz garatzeko.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren balioespen objektiboaren bidez, euren jardueraren irabazi garbia zein den zehazten duten nekazari gazteek edo soldatapeko nekazariak, euren nekazaritza-jarduerari dagokiona murriztu ahal izango dute, ondoren adierazten diren portzentaien arabera; murriztapen hori lehentasunezko nekazaritza-ustiapen bat titular bezala garatzen hasten diren urtetik hurrengo bost urteen bitartean egin ahal izango dute, beti ere ustiapena hobetzeko Plan bat garatu dutela egiaztatzen badute, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrean. Honako hauek dira murriztapenak egiteko portzentaiak:

- %50 lehenengo ezarpen-aldian.

- %45 bigarren ezarpen-aldian.

- %40 hirugarren ezarpen-aldian.

- %35 laugarren ezarpen-aldian.

- %30 bosgarren ezarpen-aldian.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ezarpen-aldiei ezarriko zaie.

Atal honetako lehenengo paragrafoan ikusi den irabazi garbia, balioespen objektiboaren metodoa erautzen duten arauak ezarriko dira.

Atal honetako lehenengo paragrafoan aurreikusi diren murriztapenak eta Foru Arau honen bigarren xedapen gehigarrian azaldutako murriztapenak, bateraezinak dira.

Murriztapen hauek, zatikako ordainketen zenbatekoa zehazteko hartuko dira kontuan.

9 artikulua bis.- (6) Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jarduerara atxikitako lursailak eskualdatzea.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, eta horien baitan ekonomia-jardueren errendimendu garbia zehazte aldera, ekonomia-jarduera horietara atxikitako ondare elementuetatik sortutako ondare-galera edo irabaziak kontuan hartuko dira eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoaren arabera zenbatuko dira.

Halaber, aipatutako Foru Arau horretako 22. eta 52. artikuluek aparteko irabazien berrinbertsio-kasuetarako eta berrinbertsioen salbuespen-kasuetarako xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hala balegokio, artikulua honetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz sortzen diren irabazi edo galerak gehitu edo kendu egingo zaizkio ekonomia-jardueraren errendimendu arruntari, errendimendu garbia zehazte aldera.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, dela borondatez edo behartuta, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueretara atxikitako lursailak eskualdatzen direnean, eskuratzailerak Lurralde Administrazio Publiko batek edo batzuek beren esku duten sozietate bat izanez gero, zergadunak aukera egin ahal izango du: zerga ordaintzerakoan, ekonomia-jarduerara atxikitako elementuendako ezarritako xedapenak aplikatu ala jarduera horretara atxiki gabeko elementuendako ezarritakoak aplikatu.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauak artikulua honetan xedatutakoa osatzen duela ulertuko da.

10. artikulua.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko, ekainaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren aldaketa.

1. Ekainaren 19ko Higiezinaren Ondasunen gaineko Zergaren 42/1989 Foru Arauko 4. artikuluko c) hizkia aldatu da, eta honela geratu da:

“c) Hazkunde geldoa duten espezieez populatutako mendiak, titulartasun publikoa edo pribatua dutenak.

Salbuespen honetan sartuko ditugu, Arabako Nekazaritza Saileko espezieen izendegiaren arabera, hazkunde geldoa izan eta nagusiki egurra lortzeko erabiltzen diren baso-espezieak, baita baso-espezie hori aurki dezakegun mendiaren aldea ere, beti ere, zuhaitzien dentsitatea espezieari dagokiona denean.

Aldi berean, salbuespenean sartuko ditugu, alde batetik, goiko paragrafoan agertzen ez diren mendiak, baina Korporazioek, Erakundeek eta partikularrek, lursailetan berrohanantzatzak egiten badituzte, hortik sortutako zuhaitziak; eta bestetik, Baso-Administrazioak onartutako ordenamendu-proiektuen edo plan teknikoaren bidez birsortzen ari diren zuhaitziak ere bai. Paragrafo honetan onartutako salbuespenak hamabost urteko iraupena izango du, eskaera egiten den ezarpen-aldetik aurrera”.

2. Ekainaren 19ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 42/1989 Foru Arauko 15. artikulua aldatu da, eta honela gertatu da:

a) Oraingo 1., 2. eta 3. atalek, 15. artikuluko 2 zenbakia osatuko dute.

b) 15. artikuluko 1. zenbakiari honako testu hau dagokio:

"1. Babestutako Naturguneetan dauden landa-lursailek, beti ere zuhaiztiak badituzte, zergaren kuotan %95eko hobaria izango dute."

11. artikulua.- Baso-iharduera garatzen duten landa-lursailen eskualdaketarako zerga-neurriak.

Zuhaiztiak dituzten landa-lursailak "mortis causa" eskualdatzetan eta "inter vivos" egiten diren dohaintzetan -bai jabetza osoa bai usufuktu gabeko jabetza ere eskualdatzean- dagokion zergaren oinarria murriztuko da, eta horretarako honako eskala hau jarraituko da:

- %95 Babestutako Naturguneetan dauden azalerentzat.
- %90 Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak onartutako Baso-Ordenamendurako Plana, edo Basoak Kudeatzeko eta Hobetzeko Plan Teknikoa, edo baso-planifikaziorako planen bat garatzen duten azalerentzat.
- %75 zuhaiztiak dituzten gainontzeko landa-azalerentzat, beti ere, eskurapena egin eta hurrengo bost urteetan, Eskualdaketaren ondorioz landa-lursailaren baso-izaera gordetzen ez bada, "inter vivos" eskualdatzen ez bada, alokatzen bada edo ustiapena beste bati lagatzen ez bazaio.

Murriztapen bera egingo zaio, eskualdaketa egin duen pertsonak lursailean zuen usufuktu-eskubidea desagertaraztean.

Artikulu honetan arautu diren zerga-hobariak honako kasu honetan ezarriko dira, dagokien eskalaren arabera; nekazaritza-ustiapenerako dagoen azalera osotik,%50 baino gehiago basoetara dedikaturik dagoenean.

12. artikulua.- Sozietateen gaineko zerga-onurak.

1. Nekazaritza-jardueraren eragin kontaminatzailea gutxitzearekin eta zuzentzearekin zuzenean erlazionaturiko material berriaren aktibo finkoko elementuak, baita ureztatzeko ur-kontsumoa aurreztearekin zuzenean erlazionaturiko material berriaren aktibo finkeen elementuak ere, askatasun osoz amortizatu ahal izango dira.

Goiko paragrafoan azaltzen den amortizazio-askatasuna lortu ahal izateko, subjektu pasiboak eskatu behar du eta Zerga-Administrazioak onartu, gaiari dagozkion eskumeneko organoen txostena irakurri ondoren.

Atal honetako lehenengo paragrafoan amortizazio-askatasunari ezartzen zaizkion kopuruek ezarpen-oinarria gehituko dute, amortizazio-askatasuna izan zuten elementuen amortizazioa, eskualdaketa edo, hala izanez gero, desafektazioa eginez gero.

2. Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek, nekazaritza-jarduerak garatzen dituztenek, kuota likidotik honako portzentaia hauek murriz ditzakete:

- a) %15 murriztuko dute nekazaritza-jardueraren eragin kontaminatzailea gutxitzearekin eta zuzentzearekin zuzenean erlazionaturiko material berriaren aktibo finkoetan egin diren inbertsioek, baita ureztatze ur-kontsumoa aurreztearekin zuzenean erlazionaturiko material berriaren aktibo finkoetan egiten direnek.

Goiko paragrafoan adierazitakoari, uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergaren 24/1996 Foru Arauaren 42. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. zenbakietan azaldutakoa ezarriko zaio.

- b) %15 murriztuko dute nekazaritza-jardueraren garapenarekin erlazionaturiko material berrien aktibo finkoetan egiten diren inbertsioek, lursailak bertan sartu gabe.

(4) Aurreko paragrafoan, b) letran, aurreikusitako kenkaria inbertsioen %20koa izango da, hau da, ardogintzan diharduten zergadunek upel berriak eta inoiz erabili gabeak erosteko egiten dituzten inbertsioen %20koa, betiere, arauak agindutako eran, upel kopuru bera suntsitu duela egiaztatzen badu.

hizki honetan adierazitakoari, uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergaren 24/1996 Foru Arauan adierazitakoa ezarriko zaio. Hala ere, eta barrika berriak erosteko egiten diren inbertsioei dagokienez, ez zaie ezarriko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arau horretako 37. artikuluko 4. zenbakiko d) eta e) hizkietan adierazitakoa.

- c) Nekazaritza-ustiapenen titularrek, legez eratuta dauden sozietateetan partaidetzak eskuratzeko egiten dituzten inbertsioen zenbatekoaren %5; beti ere, sozietate horien helburu nagusiak nekazaritzarako makinak alokatzea, nekazaritza-produktuak merkaturatzea, edo labore berriak aztertzea eta garatzea, edo abere-ustiapenerako teknika berriak aztertzea izango dira.

Murriztapen hauek ezarri ahal izateko, partaidetza horiek bost urtez, gutxienez, jarraian, eskurapena egin duen pertsonaren ondarean egon beharko dute, eskurapena egiten den egunetik hasita.

Aldi berean, murriztapen hau ezarri ahal izateko, partaidetzak eskaintzen dituen enpresaren artean eta partaidetzak eskuratzen dituen pertsonaren artean ezin da inolako lotura-erlaziorik izan.

- d) Nekazaritza-ustiapenen titularrek, ustiapenerako zuzentzeko landa-lursailak eskuratzeko egin duten inbertsioaren zenbatekoaren %5; helburu bezala ustiapen eraginkorrago bat lortzea dute.

Honetarako, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari Ustiapenerako Proiektu bat aurkeztu beharko zaio, baita proiektu horren laburpen bat ere, eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak helburu hori betetzen denentz aztertuko du.

Murriztapen hau ezarri ahal izateko, landa-izaera duen lursaila eskuratu duen pertsonak, landa-lursail hori nekazaritza-ustiapenera bideratu beharko du, gutxienez 10 urtetan, eta ezingo dio hirugarren pertsona bati eskualdatu, alokatu edo laga.

Azkeneko besterentzea izan zutenetik 10 urte baino gutxiago pasa eta berriro eskualdatu diren lursailak, ez dira onura honetan sartuko.

- e) Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek, nekazaritza-ustiapenen titularrek, labore berriak aztertzeagatik eta garatzeagatik edo abel-ustiapenerako teknika berriak aztertzeagatik (arauen bidez zehazten direnak), izandako gastuen kuota likidua murriz dezakete.

Goiko paragrafoan adierazitakoari uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergaren 24/1996 Foru Arauko 41. artikuluan adierazitakoa ezarriko zaio.

3. Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek, nekazaritza-jarduerak garatzen dituztenek, eta uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergaren 24/1996 Foru Arauko 49. artikuluan adierazitakoaren arabera, enpresa txiki edo ertainak direnak, ekitaldian zehar lortutako errenta positiboak ezarpen-oinarrian ez sartzeko aukera dute, errenta horiek nekazaritza-ustiapenerako material higiezinako elementuak doan eskualdatzean izandako monetaren baliogaleraren zenbatekoan zuzendu ondoren (Foru Arau horren 15. artikuluko 11. atalean araututakoa). Hori guztia lortzeko, errenta horiek ezingo dute 50 milioi baino gehiagoko zenbatekoa izan eta horrez gain, eskualdaketa zenbateko guztia berriro beste material higiezinaren elementuetan inbertitu behar bada, nekazaritza-ustiapen berean, eta epea ondare-elementua ematen den eguna baino urtebete lehenagotik ondorengo hiru urteetan luzatuko da.

Adierazitako epearen barruan ez bada berriro inbertsioa egiten, epe horri dagokion ekitaldiaren aitortpen-likidaziotik lortzen den kuotari, murriztu zen ekitaldiari zegokiokeen kuota osoa gehitu behar zaio, baita atzerapenengatiko interesak ere.

Errenten zenbatekoa 50 milioi baino gehiago denean, atal honetako lehenengo paragrafoan agertzen den salbuespenaren barruan sartuko da zenbateko hori, eta errentaren gainontzeko zenbatekoa, uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergaren 24/1996 Foru Arauko 22. artikuluko 3. atalean ezarritakoari egokituko zaio.

13. artikulua.- Foru Arau honen aurreko artikuluko 2. zenbakian ezarritako murriztapenei ezarri beharreko arauak.

1. Foru Arau honen aurreko artikuluan ezarritako murriztapenak eta operazioen inbertsioengatik dauden zerga-onurak ez dira bateragarriak, hiru kasutan izan ezik: amortizazio-askatasunari dagokionean, amortizazio azeleratuari dagokionean, eta aparteko onurak direnean (uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauko 22. artikuluko 3. ataleko lehenengo paragrafoan aurreikusitako direnak).

2. Foru Arau honetako aurreko artikuluan aurreikusitako murriztapenen batuketan, uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauko IV., V. eta VI. Kapituluetan aurreikusitako murriztapenekin batera, ezin izango da %40 baino gehiago izan.

3. Uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauko IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako murriztapenetan ezarritako mugak edo baldintzak batera erabiliko dira, bai Kapitulu horretako murriztapenak egiteko, bai Foru Arau honen aurreko artikuluan ezarritako murriztapenak egiteko ere.

4. Foru Arau honen aurreko artikuluan aurreikusitako murriztapenei, uztailaren 5eko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauko 46. artikulua ezarri ahal izango zaie.

14. artikulua.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.

1. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ez dute ordaindu beharko, ureztatzeko sistema jartzeko egiten diren eraikuntza, instalazio edo obrek, beti ere, Arabako Foru Aldundiak onartutako Ureztatzerako Planaren barruan sartzen badira.

Goiko paragrafoan azaldu dugun salbuespenean, ureztatzeko sistema ezartzeko egin behar diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak, eta sistema ondo mantentzeko egin behar direnak, sartuko ditugu.

2. Aurreko 1. zenbakian agertzen zen salbuespenari dagokionez, uztailaren 19ko Tokiko Ogasunak arautzeko 41/1989 Foru Arauan agertzen diren erakundeek ez dute konpentsazio ekonomikorik izango.

15. artikulua.- (8) Zehatzeko erregimena.

Foru arau honetan ezarritako zerga-onurei dagokionez, aplikagarriak izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean bildutako arau-hausteak eta zehapenak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.-Uztailaren 4ko 19/1995 Legean, Nekazaritza-Ustiapenen Modernizazioari buruzkoa, agertzen diren definizioak, terminoak eta kontzeptuak erabil daitezke, Foru Arau honetan ezarritakoaren aurka ez doazen bitartean.

Aldi berean, uztailaren 4ko 19/1995 Legean ezarritako zerga-pizgarriak Araban erabili ahal izango dira (Nekazaritza-Ustiapenen Modernizaziorako), Lege hori eta Foru Arau hau indarrean sartzen direnetik aurrera.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ezartzean, Bertako Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan agertzen diren erakundeek ez dute konpentsazio ekonomikorik jasoko.

Bigarrena.- 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko diren ezarpen-aldien kasuan, martxoaren 30eko 16/1995 Foru Arauko Hamaikagarren Xedapen Gehigarriko lehenengo paragrafoa luzatu egingo da (zerga-izaera duten neurriei buruzkoa, abenduaren 30eko 16/1995 Foru Arauak zerga-neurriei, administrazio-neurriei eta gizarte-ordenamenduari buruz dioena ikusita).

Hirugarrena.- Uztailaren 19ko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 42/1989 Foru Arauko 15. artikuluan ezarritako hobariari dagokionez -Foru Arau honek dioenaren arabera- Udalerriek ez dute konpentsazio ekonomikorik jasoko.

Laugarrena.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarrian edo Sozietateen gaineko oinarrian ez da sartuko (edo sartzekotan, aldez aurretik ezarriko den zenbateko batengatik egingo da), Arabako Foru Aldundiak nekazaritza- eta abeltzaintza-politikaren ondorioz ematen dituen laguntzen edo kalteordainen ondorioz lortutako errenta positiboa.

Bostgarrena.- Foru Arau hau ezartzean ordaindu behar den eta araudi komuna duen lurralde batean ezarritako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ezartzean ordaindu behar den berdina da.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

1. Foru Arau hau indarrean sartzean, 1981eko maiatzaren 31ko Ondarearen Eskualdaketaren gaineko Zergari buruzko eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 46.I.B. artikuluko 9. zenbakia deuseztatu egingo da. Aldi berean, abenduaren 2ko 42/1992 Foru Araua, Nekazaritzarekin erlazioa duten neurriak hartzen dituen, eta irailaren 14ko 6/1993 Zerga Premiazko Dekretu Arauemailea, non nekazaritzarekin erlazioa duten zerga-neurriak zehazten diren, biak hain zuzen ere, deuseztatu egingo dira.

2. Aldi berean, Foru Arau honek dioenaren aurka doazen gainontzeko xedapenak, maila berekoak eta beheragokoak deuseztatu egingo dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Foru Arau hau garatu eta ezarri ahal izateko, Foru Aldundiak nahi hainbat xedapen eman dezake.

Bigarrena.- Foru Arau hau, Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN agertu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

OHARRAK

(1)

(2)

(3) 36/1998 Foru Araua, abenduaren 17koa.
(ALHAO, 149. zk., 98-12-30koa, gehigarria).

(4) 3/2001 Foru Araua, otsailaren 26koa.
(ALHAO, 32. zk., 01-3-16koa, gehigarria).

(5)

(6) 11/2001 Foru Araua, ekainaren 13koa.
(ALHAO, 71. zk., 01-6-22koa, gehigarria).

(7) Ikusi maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauko xedapen indargabetzailea.
(ALHAO, 60. zk., 05-5-27koa, gehigarria).

(8) 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa.
(ALHAO, 30. zk., 05-3-11koa, gehigarria).